

TITULARRAK	ADIERAZLEAK			
• Bilboko enpresetan maiatzean afiliatutako biztanle-kopurua % 1,2 igo da aurreko hilekoarekin alderatuta, 202.819 pertsona baitaude. • Erregistratutako langabeen kopurua murriztu da, eta 20.420 langabe daude (-% 0,1 hilabetetik hilabetera). • Maiatzean 11.035 kontratu erregistratu ziren guztira eta 8.213 pertsona kontratatu ziren. • Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute urte batetik bestera (-% 0,5). • Bilboko hotel-establezimenduen, apartamentuen eta aterpetxe turistikoen jarduera turistikoak, guztira, 149.044 bidaiari-sarrera eta 291.941 gaualdi izan ditu (urte arteko % 1,3 eta % 5,2, hurrenez hurren). • Bizkaiko BPGd-k % 2,3 egin du gora urtetik urtera, eta % 0,5 aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. • Bilboko aireportuan 741.855 bidaiari erregistratu dira, 2025eko maiatzean baino 60.446 gehiago. • Bilboko Portuan 3,2 milioi tonako trafikoa erregistratu da maiatzean, eta % 33,7ko gorakada izan da urterik urtera.		Azken data	Δ Urte artean (%) *aurreko aldia	Azken data
	Lan-merkatua			
	Afiliatutako biztanleak (kop.)	202.819	1,2*	Maiatza
	Erregistratutako langabeak (kop.)	20.420	-0,1*	Maiatza
	Erregistratutako kontratuak	11.035	-0,4	Maiatza
	Merkataritza			
	Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenten indizea (2021. urtea = 100eko oinarria)	101,0	-0,5	Maiatza
	Turismoa (hotelak, apartamentuak eta aterpetxeak)			
	Bidaiarien sarrera (kop.)	149.044	1,3	Maiatza
	Ostatu-gauak (kop.)	291.941	5,2	Maiatza
	Batez besteko egonaldia (egunetan)	1,96	3,7	Maiatza
	Ekonomia eta enpresak			
	Bizkaiko BPGd-a (2022. urtea = 100eko oinarria)	109,6	2,3	IT26
	Garraioa			
Bidaiarien aireko garraioa (kop.)	741.855	8,9	Maiatza	
Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	3,2	33,7	Maiatza	

LAN-MERKATUA

Erregistratutako langabezia

Maiatzean 11 langabe gutxiago erregistratu ziren, hau da, hilabete arteko $-0,1\%$ gutxiago, eta 20.420 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa igo egin da gizonen eta behera egin du emakumeen artean, $-0,8\%$ eta $-0,7\%$ hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 70 gizon langabe gehiago eta 81 emakumezko langabe gutxiago zeuden.

Adin-tarteen arabera, langabezia jaitsi egin da 25 eta 44 urte bitartekoen artean eta 45 eta gehiagokoen artean, $-0,2\%$ bi kasuetan (14 eta 20 langabe gutxiago, hurrenez hurren). Gazteenen artean bakarrik egin du gora, $+1,3\%$ eta 23 gehiago.

Sektoreka, Zerbitzuek 126 langabe gutxiago dituzte ($-0,9\%$) eta Lehen Sektoreak 1 gutxiago ($-0,3\%$). Eraikuntzak ($+30\%$ eta $2,5\%$), Industriak ($+11\%$ eta $0,8\%$) eta lehen lanaren bila dabilzanek ($+75\%$ eta $2,3\%$) gora egin dute.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasak $-1,5\%$ egin du behera aurreko hilaren aldean. Taldeko hiriburu guztiek murriztu dute langabezia, Bartzelonak gehien ($-2,4\%$) eta Valentziak gutxien ($-0,3\%$).

Euskal hiriburuaren multzoan (G-3), erregistratutako langabezia-tasa $-0,9\%$ jaitsi da. Behera egin du Gasteizen ($-0,9\%$) eta Iruñean ($-1,7\%$). Donostian gora egin du ($+0,5\%$)

Langabeziak behera egin du EAEn ($-0,1\%$) hilabete artean. Lurraldeka: Araban -1% jaitsi da, Bizkaian $-0,1\%$ igo da eta Gipuzkoan $+0,2\%$ egin du gora.

Afiliazioa

Bilboko enpresetan 202.819 afiliatu zeuden maiatzaren amaieran, hau da, $1,2\%$ ko igoera izan zen eta 2.403 enplegu ugaritu ziren apirilarekin alderatuta.

Erregimenen arabera, Erregimen Orokorrak 2.138 afiliazio gehiago izan ditu aurreko hilabetearekin alderatuta ($1,2\%$), Langile Autonomoen Bereziak 112 gehiago ($0,5\%$), Etxekoak 155 gehiago ($2,5\%$) eta Bereziek bakarrik (Nekazaritza eta Itsasoa) galdu dituzte enpleguak, zehazki 2 enplegu.

Sektoreka, Zerbitzuak Sailak 2.225 afiliatu ditu ($+1,2\%$), Eraikuntzak 115 ($+1,2\%$), Industriak 72 ($+0,9\%$); Lehen Sektoreak 9 lanpostu galdu ditu ($-2,8\%$)

Erregistratutako langabeak

Hilabete artekoa Δ

Maiatza	20.420 pertsona
	$0,1\%$ ▼
Emakumeak	$0,7\%$ ▼
Gizonak	$0,8\%$ ▲

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	$0,1\%$ ▼
G-5	$1,5\%$ ▼
G-3	$0,9\%$ ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Populazio afiliatua, araubideen arabera

Hilabete artekoa Δ

Maiatza	202.819 pertsona
	$1,2\%$ ▲
Araubide orokorra	$1,2\%$ ▲
Autonomoak	$0,5\%$ ▲
Etxeko langileak	$2,5\%$ ▲
Bestelakoak	$0,3\%$ ▼

Zerbitzuetan eta datu absolutuetan, Administrazio-jardueretan eta jarduera osagarrietan, Gizarte-zerbitzuetan, Ostalaritzan eta Txikizkako merkataritzan izandako igoerak nabarmentzen dira (614, 299, 228 eta 214 afiliatu gehiago, hurrenez hurren). Enpleguak behera egin du Handizkako merkataritza, Finantza eta aseguruak eta Hezkuntza adarretan (-49, -24 eta -20, hurrenez hurren).

Urte arteko terminoan enpleguak % 1,3ko hazkundea izan du, hau da, 2.553 afiliatu gehiago.

Erregimenen arabera, gora egin dute Erregimen orokorrak (% 1,4) eta Etxekoak (% 1,8); mantendu egin da Autonomoena (% 0,0), eta jaitsi egin dira bereziak (Nekazaritza eta Itsasoa) (-% 2,1).

Oharra: EJSN-2025 berria dela eta, aldaketa horrekin jarduera batzuen sailkapena aldatu egin da, eta horrek esan nahi du ezin direla alderatu aurreko kodetzearekin. Horregatik, +datak ezin izango du urte arteko aldaketarik txertatu 2027ko urtarrileko alertara arte.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak % 1,4ko gorakada izan du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiri guztietan gora egin du afiliazioak. Gehiena Zaragozan (% 0,4).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopuruak, batera hartuta, gora egin du (% 1,4). Iruñean % 1,8 egin du behera, Donostian % 1,3 eta Gasteizen % 1,2.

EAEn, oro har, afiliatuak % 1,1 igo dira hilabete artean. Lurraldeka, Araban % 1,4 igo da afiliazioa, Bizkaian % 1,1 eta Gipuzkoan % 1,0.

Kontratuak

Maiatzean 11.035 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, urtetik urtera -% 0,4 eta 39 kontratu gutxiago. Urtetik urtera behera egin dute gizonak egindako kontratuak, eta gora, berriz, emakumeei egindakoak: 368 gutxiago eta 329 gehiago, hurrenez hurren.

Adin-taldeen arabera: Kontratuak behera egin dute 45 eta urte gehiagokoen artean soilik, -% 3,6, hau da, 108 kontratu gutxiago. 25 eta 44 urte bitartekoen artean % 0,6 egin dute gora (32 gehiago) eta gazteenen artean % 1,3 (37 gehiago). Erregistratutako kontratuen % 48,2 dagokio 25-44 urteko adin-tarteari (5.322 kontratu) % 26,1 berriz, 45 urte eta gehiagokoei (2.877) eta gainerako % 25,7, ordea, gazteenei (2.836).

Sektoreka, Industrian egindako kontratuak soilik egin dute gora (% 3,4 eta 15 kontratu gehiago), Zerbitzuetan behera egin du (-% 0,2 eta 18 gutxiago), Eraikuntzan (-% 7,7 eta 32 gutxiago) eta Lehen Sektorean 4 kontratu galdu dira. Zerbitzuetan, igoera absolutu adierazgarrienak Etxebizitzai (453 gehiago), Osasun-jarduerai eta gizarte-zerbitzuei (447 gehiago) eta Ostalaritzari (66 gehiago) dagozkie. Administrazio-jarduerak (-349),

Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Hilabete artekoa Δ

Maiatza	202.819 pertsona
	% 1,2 ▲
Zerbitzuak	% 1,2 ▲
Eraikuntza	% 1,2 ▲
Industria	% 0,9 ▲
Lehenengo Sektorea	% 2,8 ▼

Benchmarkinga

Hilabete artekoa Δ

Bilbo	% 1,2 ▲
G-5	% 1,4 ▲
G-3	% 1,4 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Erregistratutako kontratuak

Urte artekoa Δ

Maiatza	11.035 pertsona
	% 0,4 ▼
Emakumeak	% 5,7 ▲
Gizonak	% 7,0 ▼
Lehenengo Sektorea	% 36,4 ▼
Industria	% 3,4 ▲
Eraikuntza	% 7,7 ▼
Zerbitzuak	% 0,2 ▼
Kontratutako pertsonak	% 2,6 ▲

Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak (-189) eta Hezkuntza (-174) dira urte arteko beherakada handienak izan dituzten adarrak.

Aldi baterako lan-kontratuak kontratu guztien % 73,4 izan dira maiatzean. Mugagabeek % 16,9 egin dute gora urte artean. 8.213 pertsona kontratatu dira, % 2,6 gehiago. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,34 kontratu.

EKONOMIA

Bizkaiko BPGd-a

Bizkaiko Barne Produktu Gordinak % 2,3ko gorakada izan du urtetik urtera 2026ko lehenengo hiruhilekoan. Euskal ekonomia osoari dagokionez, igoera % 2,2koa da.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,5 igo da eta, ondorioz, aurreko hiruhilekoan erregistratutakoaren antzekoa izan da. Bestalde, EAEn hazkundea ere % 0,5koa izan da.

EAE osorik hartuta, jarduera-sektoreek bilakaera desberdina izan dute hiruhilekotik hiruhilekora: Zerbitzuen sektoreak soilik egin du gora, +% 1,1. Gainerakoek behera egin du: Lehen Sektorea % -0,6, Industria % 1,1 eta Eraikuntza % 1,5.

Barne Produktu Gordina Bizkaia

I. hiruhilekoa

Urte artekoa Δ	% 2,3 ▲
Hiruhileko arteko Δ	% 0,5 ▲

Hiruhileko BPG (milioi €)	13.470.5
---------------------------	----------

MERKATARITZA

Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak

Bizkaiko saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek, maiatzean -% 0,5 egin dute behera urte batetik bestera, egutegi-eragina duten datu zuzenduetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, % 2,2 igo dira salmentak.

Elikagaien salmentek behera egin dute (-% 0,7) 2025eko maiatzarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentak mantendu egin dira, % 0,0.

Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 0,1eko igoera izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek gora egin dute Araban eta Gipuzkoan (+% 1,5 bi kasuetan). EAEn, orokorrean, % 0,4 egin dute gora.

Saltoki handiak Bizkaia

Urte artekoa Δ

Maiatza	101,0
Salmenten indizea	% 0,5 ▼
- Elikadura	% 0,7 ▼
- Gainerako produktuak	% 0,0 =
Lanean ari diren langileak	% 0,1 ▲

TURISMOA

Oro har, **turismo-establezimenduetan (hotelak, apartamentu eta ostatu turistikoak)**, maiatzean 149.044 sarrera eta 291.941 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera -% 1,3 eta % 5,2, hurrenez hurren). Batez besteko egonaldia 1,96koa izan da, 2025eko maiatzekoa (1,89) baino handiagoa.

Bilboko **hotel-establezimenduetan** 229.047 ostatu-gau erregistratu dira maiatzean, hau da, % 0,4ko hazkundera egon da urtetik urtera (956 ostatu-gau gehiago).

Bidaia-ien sarrerak ere gora egin du, % 0,6. Estatuko bidaia-ien presentziak gora egin du urte artean (% 0,9), eta maiatzean hirira egindako bisita-ien % 62,7 izan dira. Gainerako % 37,3 estatuko bidaia-riak dira, eta % 0,1 egin dute gora.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako bidaia-iei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugari-ienak (% 26,2), gero Kataluniakoak (% 14,5), EAEkoak (% 11,4) eta Valentziako Erkidegokoak (% 7,1). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugari-ienak: Erresuma Batua (% 11,7), AEB (% 11,5), Alemania (% 11,4), Frantzia (% 10,0), Italia (% 7,0) eta Irlanda (% 6,5).

Batez besteko egonaldia bidaia-ri bakoitzeko 1,91 gauekoa da, aurreko urteko hilabete berekoaren berdina.

Hotel establezimenduek emandako errentagarritasun datuen arabera, urtetik urtera batez besteko tarifak gora egin du, 163,8 euroraino, baita gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak ere (139,6 euro).

Apartamentu turistiko-ien establezimenduek¹ 16.415 sarrera erregistratu dituzte guztira maiatzean, hau da, % 8,8 gehiago eta 40.132 gaualdi, 2025eko maiatzean baino % 45,4 gehiago.

Maiatzean, 12.553 sarrera eta 22.762 gaualdi erregistratu ziren **turismo-aterpetxeetan**², -% 1,1 eta +% 4,8 urte batetik bestera, hurrenez hurren.

¹ Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalean eta ohikoan aldi baterako ostatu ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

² Turismo-aterpetxeak: "Turismo-aterpetxeak dira, ohikotasunez eta modu profesionalean, ordainsari baten truke, plaza bakoitzeko geletan ostatu-zerbitzua eskaintzen duten establezimenduak; gehienbat gela kolektiboetan edo edukiera anitzeko geletan, eta, hala badagokio, jatetxe- edo ostalaritza-zerbitzu osagarriekin edo horiek gabe. Halaber, aisialdiko, hezkuntzako, kiroleko nahiz bestelako jarduerak ere eskain ditzakete".

Establezimendu turistiko hartzaileak GUZTIRA

Urte artekoa Δ

Maiatza

Ostatu-gauak, guztizkoak	291.941 ostatu-gauak
	% 5,2 ▲
Sarrerak, guztira	149.044 sarrerak
	% 1,3 ▲
Egonaldia, batez beste	1,96 ostatu-gau/bidaia-riko

Hotel establezimenduak

Urte artekoa Δ

Maiatza

Ostatu-gauak	229.047 ostatu-gauak
	% 0,4 ▲
3 izar eta gehiagoko hotelak	% 1,3 ▼
Gainerako hotelak eta pentsioak	% 5,0 ▲
Bidaia-ien sarrerak	120.076 sarrerak
	% 0,6 ▲
Espainiakoak	% 0,1 ▲
Atzeritarrak	% 0,9 ▲
Egonaldia, batez beste	1,91 ostatu-gau/bidaia-riko
Hotelen errentagarritasunaren adierazleak	
Eguneko batez besteko tarifa logelako (€)	% 13,7 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 14,2 ▲

Apartamentu turistikoak

Urte artekoa Δ

Maiatza

Ostatu-gauak	40.132 ostatu-gauak
	% 45,4 ▲
Bidaia-ien sarrerak	16.415 sarrerak
	% 8,8 ▲
Egonaldia, batez beste	2,44 ostatu-gau/bidaia-riko

Turismo-aterpetxeak

Urte artekoa Δ

Maiatza

Ostatu-gauak	22.762 ostatu-gauak
	% 4,8 ▲
Bidaia-ien sarrerak	12.553 sarrerak
	% 1,1 ▼
Egonaldia, batez beste	1,81 ostatu-gau/bidaia-riko

Benchmarkinga. Euskal hiriburuak aintzat hartuta (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera positiboa izan da, % 4,5 egin du gora urtetik urtera. Gasteizen % 0,6 egin dute gora, Iruñean % 1,6 eta Donostian % 7,1.

EAEn % 4,4 igo dira aurreko urteko maiatzaren aldean. Lurralde guztietan gora egin du kopuruak: Bizkaian % 1,9, Araban % 2,8 eta Gipuzkoan % 7,7.

Bestalde, Estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 1,5eko gorakada izan dute. Sevillan (-% 1,1) eta Zaragozan (-% 6,9) izan ezik, ostatu-gauak gora egin dute taldeko hiriburu guztietan. Valentziak izan du goerarik handiena: % 16,8.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA

Aireportuko bidaiariak

Bilboko aireportuak 741.855 bidaiari erregistratu ditu maiatzean (iritsierak eta irteerak); beraz, urte artean % 8,9ko igoera izan du (aurreko urteko hilabete berean baino 60.446 bidaiari gehiago). Eraitza horiei esker, hilabeteko daturik onena lortu du martxan jarri zenetik.

Merkataritza-operazioetan, igo egin da hegaldi nazionaletako bidaiarien kopurua (15.593 bidaiari gehiago, % 4,2), baita nazioartekoetakoa ere (44.209 bidaiari gehiago, % 14,1).

Hilean operatutako hegaldiak igo egin dira, eta iritsieren eta irteeren artean 5.590 izan dira. Eta jaitsi egin dira, aldiz, haietan garraiatutako salgaiak (-% 16,3).

Urtarriletik maiatzera 2.826.064 bidaiari metatu dira, aurreko urteko aldi berean baino % 8,3 gehiago, hau da, 215.896 bidaiari gehiago.

Benchmarkinga. Espainiako bost hiri nagusien barruan (G-5), urtetik urtera % 6,2ko igoera kontabilizatu da bidaiariei dagokienez. Aireportuen artean, Valentziakoa izan da igoera handiena izan duena (% 11,8), eta Madrilgoa, berriz, txikiena izan duena (% 4,8). Zaragozak soilik egin du behera (-% 5,4).

G-3 multzoan, bidaiarien zirkulazioari begira, urtetik urtera % 13,6 igo da. Gasteizek % 32,3 egin du gora, Iruñeak % 10,2 eta Donostiak % 1,8.

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 0,4 ▲
G-5	% 1,5 ▲
G-3	% 4,5 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Aireko garraioa

Urte artekoa Δ

Maiatza	741.855 bidaiari
	% 8,9 ▲
Espainiakoak	% 4,2 ▲
Nazioartekoak	% 14,1 ▲
Salgaiak (kg)	% 16,3 ▼
Hegaldiak	% 1,7 ▲

Benchmarkinga

Urte artekoa Δ

Bilbo	% 8,9 ▲
G-5	% 6,2 ▲
G-3	% 13,6 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

Portuko trafikoa

Bilboko Portuak 3,2 milioi tonako trafikoa izan du maiatzean, hau da, % 33,7ko igoera aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolioa eta gasa, funtsean) portuan maiatzean kudeatzen diren salgaien % 67,4 izan da, eta urte arteko % 81,1eko igoera erregistratu du. Solteko gaien trafikoa -% 25,0 jaitsi da (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste), eta salgai orokorra -% 6,8.

Maiatzean 18.168 itsas bidaiari erregistratu dira 16 itsas bidaiatan.

Metatutako datuari dagokionez, urtariletik maiatzera, 14,5 milioi tona lortu dira portuko trafikoa, aurreko urteko aldi berean baino % 9,1 gehiago.

Itsas garraioa maiatza

Urte artekoa Δ

Portuko trafikoa	3,2 milioi tona.
	% 33,7 ▲
Bidaiarien garraioa	33.582 bidaiari
	% 0,5 ▼
Gurutzaldiko bidaiariak (kop.)	18.168 gurutzaldiko bidaiari
	% 0,5 ▲

ADIERAZLEEN KOADROA


	Azken datua	Urte arteko aldakuntza (%) <i>*aurreko aldia</i>	Azken datuaren data
Lan-merkatua			
Erregistratutako langabeak (kop.)	20.420	-0,1*	2026ko maiatza
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	202.819	1,2*	2026ko maiatza
Erregistratutako kontratuak (kop ^o)**	11.035	-0,4	2026ko maiatza
Biztanleria aktiboa (milaka)	177,0	-0,6*	2026ko I. HH
Biztanleria okupatua (milaka)	163,8	4,6*	2026ko I. HH
Biztanleria langabetua (milaka)	13,3	-38,1*	2026ko I. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	7,49	-4,59 ep.*	2026ko I. HH
Merkataritza			
Kontsumo-prezioen indizea (KPI)***	103,4	0,2*	2026ko maiatza
Afiliatuak**	19423	0,9*	2026ko maiatza
Txikizkako merkataritza-salmenta (indizea)***	112,3	2,6	2026ko I. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	101,0	-0,5	2026ko maiatza
Turismoa			
Hotel establezimenduak			
Bidaia-erien sarrerak	120.076	0,6	2026ko maiatza
Ostatu-gauak	229.047	0,4	2026ko maiatza
Batez besteko egonaldia (ostatu- gauak/bidaia-eriak)	1,91	0,0	2026ko maiatza
Hotelen okupazio maila (%)	69,3	-0,3 e.p.	2026ko maiatza
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	139,6	14,2	2026ko maiatza
Apartamentu turistikoak			
Bidaia-erien sarrerak	16.415	8,8	2026ko maiatza
Ostatu-gauak	40.132	45,4	2026ko maiatza
Batez besteko egonaldia apartamentuetan	2,44	33,33	2026ko maiatza
Ekonomia eta enpresak			
Bizkaiko BPGd-a	109,6	0,5*	2026ko I. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	109,3	3,8	Apirila / Abril 2026
Merkataritza-sozietate berriak	250	-3,8	2026ko I. HH
Zerbitzuen salmentak (indizea)***	122,2	1,5	2026ko I. HH
Etxebizitza librearen batez besteko prezioa (€/m ²)	5.015,1	-2,6*	2025eko IV. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m ²)	3.656,3	9,4*	2025eko IV. HH
Etxebizitzaren alokairuaren prezioa (€/hilabete)	984,1	4,4*	2025eko III. HH
Garraioa			
Bidaia-erien aireko garraioa (kop.)	741.855	8,9	2026ko maiatza
Hegaldiak	5.590	1,7	2026ko maiatza
Salgaien itsas-garraioa (milioi tona)	3,2	33,7	2026ko maiatza
Hiri- eta metropoli-garraioa (milioi bidaiari)	137,8	9,5	2025

* Aurreko aldiarekiko aldakuntza-tasa. ** Enpresen arabera, Bilbon. *** Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Guk egina, datu hauetan oinarrituta: Eustat, EIN, Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioa, Eusko Jaurlaritza, Lanbide, SEPE, Merkataritza Erregistroa, AENA, Estatuko Portuak, Bizkaiko Foru Aldundia eta Cotrabi.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Kontratuak




Aireportuko bidaiariak



Afiliatuak



Bizkaiko BPGd-a



Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak

